2. Unamunoren atarian

Joxe Azurmendi

2.1. OHAR BIOGRAFIKOAK

1864-09-29an Miguel de Unamuno y Jugo Bilbon Zazpi Kaleetako Erronda kalean jaio zen («nací... en la invicta villa liberal de Bilbao»).

Geroago jatorri bilbotar liberala nabarmentzea gustatu zaion arren, deusek ez du erakusten bere jatorri eta inguru familiarra liberala izan duenik. Aita «indianoa», Mexikon dirua egindakoa,1868an zinegotzi liberala Bilboko Udalean, sei urterekin galdu zuen. Unamunoren haurtzaroa familian eta heziketa-eskolan eta Institutuan erlijiosoa eta kontserbatzaile estua izan zen; hala, gaztetxoaren irakurketa pertsonalak ere: «allá, en el cuarto año de mi bachillerato, leí a Balmes [*El protestantismo comparado con el catolicismo en sus relaciones con la civilización europea*] y a Donoso Cortés [hain zuzen *Ensayo sobre el catolicismo, el liberalismo y el socialismo*, biak ere ez biziki liberalak!], únicos escritores de filosofía que encontré en la biblioteca de mi padre». Biok bere bizi guztirako markatu dutela, esan liteke, ideologiko-filosofikoki.

Gogoko beste irakurgai batzuk Trueba eta Vicente Aranaren euskal kontakizun «erromantikoak» izan dira, eta Navarro Villosladaren *Amaya o los vascos del siglo VIII*. Hori gogoan hartzekoa da: a) Unamunoren lehen periodo «baskista»ren izaera atzemateko, Foruak ezabatu eta gero (Bilbon), eta b) periodo hori nola itxi den ulertzeko (Madrilen) eten bortitz batekin baskismo «erromantikoaren» aurka, «arrazionalismora» eta positibismora lerratuz beste muturrean, eta erreakzio horretan abertzaletasun politiko arana-goiritarrari bezainbat destaina eginez euskaltzaletasun kultural orori, eta euskarari berari.

1880. urtean («teniendo yo dieciseis») Filosofia eta Letren ikasketak hasi zituen Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, 1883ko ekainean lizentziaturako gradua lortuz, urtebete geroago doktoretza hogei urterekin. Tesi doktorala: *Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca*, euskal «mitologia erromantikoaren» ausiabartza zientifiko gogorra.

1885-1890 bitartean Bilbon egon zen, han eta hemen oposizioetara aurkeztuz, horien artean euskararen katedrara Bilboko Institutuan, R. M. Azkuek irabazi zuena (1888). 1886, «Orígenes de la raza vasca», 1887, «Espíritu de la raza vasca»

konferentziak El Sitio elkartetxean, tesiaren ildotik, erantzuki biziak eragin zituztenak.

1891: Salamanca, azkenean katedradun; aurrena greko klasikoarena, geroago latin eta gaztelaniaren filologia konparatuarena eta hizkuntza espainolaren historiarena. «Aquí (...) me he dejado penetrar de espíritu castellano». Hirian lagunarte liberal eta progresistarekin elkartu zen; Eliz hierarkiarekiko kritiko, arazo sozialez kezkatua. 1894an PSOEko kide egin eta Bilboko *La lucha de clases* aldizkarian lankide emankor izan zen; 1896an atera egin zen Alderdi Sozialistatik.

1897, krisi erlijioso dramatikoa; etena positibismoarekin eta arrazionalismoarekin. Baina, maila pertsonalean, haren konbertsio-saioa porrot bat izan zen: haurtzaroko fede xaloa berarentzat jada ez da posible egiten. Erreakzio «tragikoa»: aurrerantzean bere sinestea sinetsi gura izatea izanen da. Maila publikoan ere berehala Espainia tradizionalarekin borroka «tragiko» bat abiatuko du: Espainiak espiritu espainol berri(tu) bat behar du, eta bera espiritu horren piztaile izango da.

1898, Kubaren independentzia —«el desastre»—, Inperioaren akabera.

1901, Salamancako Unibertsitateko errektore (hiru aldiz izango da). Inperio koloniala galdurik, Espainiak orain inperio espiritual berri bat eraiki behar duela pentsatuz, Unamunok, Errege Katolikoen Unibertsitateko bere katedratik eta errektoregotik, bere burua «arraza linguistiko» espainol guztiarentzat erantzukizun bereziarekin eta misio salbatzaile batekin uste du.

1901ekoak dira, hain zuzen, Bilbon Lore Jokoetan egindako adierazpenak euskararen bizi ezin eta hil beharraz mundu modernoan balio ez omen duelako. Probokazio bat izan gura zuen, eta egin ere hainbat erreakzio probokatu zuen euskararen aurka nahiz alde. Unamunori zor zaizkio gero espainolismo basatiak euskararen basatasunaz erabili dituen topiko gehienak; baina baita, neurri batean, Lizardiren «nahi haunat ere noranahikoa», eta abar, euskara lantzeko eta modernotzeko ahaleginak.

XX. mendeko lehen partean Unamuno, intelektual asko legez, politikan sartu zen Espainia erregeneratzeko asmotan. 1912-1913an beste irakasle batzuekin batera, laborantzaren kanpainan engaiatu zen, herriz herri ibiliz jendea kontzientziatzen maiztergo-legeen erreformaren alde, lursail-jabeekin kritiko zorrotz; baina ez zen sozialista ageri, «no defiende en absoluto la socialización de la tierra» (P. Ribas). 1914an Irakaskuntza Publikoko Ministerioak, inolako arrazoirik eman gabe, errektoregotik idoki zuen. Unamunok, orain askatasunaren martiri, kritika orokor zakarrenaz erantzun zuen, monarkiari erasoz, alderdi-sistemari eta bozkei eta demokraziari berari, gizarte espainol oligarkikoari eta ustelkeria arruntari.

Lehen Mundu Gerrakoan, beharbada iritzi publiko arrunta germanofiloa zenean, bera, intelektual gehienekin, aliatuen alde paratu zen: «Del lado de la civilización anglo-latina» (Alemania «el bárbaro» da harentzat), militarismo eta autoritarismoa

salatuz, kondenatuz Espainiaren neutraltasuna. J. Chevalier frantsesari idatzi zionez: «(...) a mi parecer lo que se está debatiendo es nada menos que el porvenir del derecho cristiano, el cristianismo amenazado en sus raíces por el paganismo de esa Realpolitik de la Kultur [alemana]» (1915). Udaleko zinegotzi hautatua1917an, berriro sozialistengana hurbildu zen. 1920an epaitegi batek Maiestatearen laidoagatik hamasei urteko kartzelara kondenatu zuen; indultatua izan zen. Unamunok erregearen aurka agitatzen jarraitu zuen.

Unamunoren biografia politikoan abentura nagusia Primo de Riverarekikoa da. 1923ko irailean Jeneralak, erregearen adostasunarekin, estatu-kolpea eman eta diktatura ezarri zuen. Abenduan Unamuno berriro epaitegian zegoen Maiestatearen laidoagatik salatua, oraingoan absolbatua ateratzeko. Unamuno ez zen okildu. 1924ko otsailean diktatoreak bere kargu guztiez gabetu eta Fuerteventura uhartera erbesteratu zuen. Uztailean indultua eman zitzaion arren, justizia nahi zuela, ez grazia, eta, indultuari muzin eginez, Parisera autoexiliatu zuen berak bere burua, handik erregeari eta gobernuari tonurik iraingarrienetan atakatzen jarraitzeko. Sozialistak eta UGT ere gogor kritikatu zituen diktaturarekin konpontxo egin zutelako. Hamairu hilabete Parisen eginda Hendaiara etorri zen (1925, abuztua) 1930era arte. Urte horretan, Primo de Riveraren erregimena erorita, Unamuno diktaturaren aurkako erresistentziaren sinbolo bezala triunfoan itzuli zen Salamancara.

Hendaiako egonalditik ikus poesia bat eraskin gisa oharron azkenean —«Orhoit gutaz»—, Euskal Herriarenganako bere pentsamendua eta sentimentua laburbilki erakusten baitu.

1931ko 14an Errepublika aldarrikatu zen, Salamancan Unamunok egin zuen aldarria. Bozetan Gorteetako diputatu atera zen (1931-1933). Intelektual gisa miretsia, heroi errepublikar bezala ohoratua, Errepublikak bizialdiko errektore izendatua, eta abar, Unamuno loriaren lorean zen. Alabaina zein dira zinetan Unamunoren helburu politikoak? Orain artean beti kontra eta kontra egon da. Orain ere Parlamentua hartzen ari den «ezkerreko» martxarekin Elizarekiko politikan, lur-erreforman, nazioaren egituraketa konstituzionalean, Kataluniako Estatutuaren eztabaidan (Unamuno antifederala da, estatu zentralista indartsuaren aldeko, elebitasunaren aurkari), eta abar, laster erretxindua ageri da. Klase politiko espainola zozoa eta ezjakina da, errogabekoa tradizioan. Haren begikeran politika errepublikarra iraultza eta kaosa sortzen ari da, klase-borroka eragiten, Espainia suntsitzen; Espainia Errepublikatik salbatu beharra dago. 1933ko bozetan Unamuno Alejandro Lerrouxen eskuineko kandidaturan aurkeztu zen, unamunozaleen eskandalu handiarekin. Lehenagotik zetorren Parlamentuan eskuindarki bozkatzen.

Eskuindar bozkatu eta ezkertiar argudiatu, politikan Unamunok, beti jatortasun gehiagoaren aitzakian, anbiguotasun labain batekin jokatu du, azkenean bere anbiguotasunek harrapatu duten arte. Liberalismo, sozialismo, anarkismo eta nolanahiko ismoetan barnatu da, inon ez du iraun. Ezpara bat izan da denetan. Jendea lo zahar batean lo zegoela eta, bere misioa xaxatzea, ziztatzea, irabiatzea

omen zela-eta, bakeari destaina egin dio eta ausarki «gerra zibila» predikatu: haren «ausarkeria» anbiguoetako beste bat (zinetan klase-borroka kontzeptua bera inzibila begitantzen zitzaion), literaturkeria hutsa.

1936ko uztailaren 18an jeneralen matxinkeriarekin gerra zibila egiaz piztu zelarik, matxinatuen kaserna nagusia Salamancan landatu zen. Bertatik Unamunok bost mila pesetako diru-emaria eman zuen altxamenduaren alde (katedratiko baten ia urte osoko soldata), dei bat sinatu zien Europako intelektualei hura sostenga zezaten; militarrek hiriko udalbatza demokratikoa desegin baitzuten, inolako erreparorik gabe onartu zuen Del Valle komandante alkate berriaren alboan zinegotzi izendapena. Berak esan: «Tan pronto como se produjo el movimiento salvador del general Franco, me he unido a él pensando que lo que importaba ante todo era salvar la civilización occidental cristiana y con ella la independencia nacional».

Urriko lehen egunetan Gotzainaren Jauregian Francorekin izan zuen bistak, bere adiskideen alde erregutzeko antza, ez zuen deus balio izan. Gero urriaren 12ko —«Fiesta de la Raza»— istiluaren pasadizo ezaguna dator Millán Astrayrekin, eta mila bider errepikatu izan den Unamuno gaitzituaren protesta («vencer no es convencer»). Bitartean, izan ere, matxinatuek bazter guztietan errepublikarren erailketa eta garbiketa odoltsuenean ziharduten. Salamancan bertan jendetzak dira atxilotuak eta fusilatuak epaiketarik gabe, horien artean alkate errepublikarra, unibertsitateko irakaslea, eta diputatu sozialista bat, Unamunoren adiskideak biak; beste hainbat lagun eta kolega ziegan zen; asasinatua Granadako Unibertsitateko errektorea, Unamunoren ikasle kuttun ohi eta adiskide min-mina.

Azkeneko egunak etxe barruan gordeta egon zen. Eman zituen interbistengatik, hala ere, eta kritika batzuk gorabehera, azken unera arte bere pentsamendua beti Francoren aldekoa izan zen. 1936ko abenduaren 31n hil zen.

Gizonaren tinkotasun moral ukaezina aparte, ordea, intelektualaren zuntzunkeria politikoak, bereziki azkeneko jarrerak, anitz problema planteatzen du. Ez da bakarrik jeneralen altxamenduari entusiasmoz lotu zaiola, baizik arloan darabilen terminologia guztia («el salvajismo inaudito de las hordas marxistas», etab.); batez ere munduaren aurrean Francoren altxamendua zuritu guraz («este movimiento salvador») ematen dituen arrazoiek zer-nolako pentsaera adierazten duten. «El mundo debe enterarse de que la guerra civil española no es una guerra entre liberalismo y fascismo, sino entre civilización y anarquía (...). Esta lucha no es una lucha contra la República liberal, es una lucha por la civilización». Holako esaldietan interprete onbera edo interesatu batzuek Unamuno (sozialista!?)ren oldarra boltxebismoaren aurka zela, ez Errepublikaren aurka, irakurri nahi dute. Bego, beharbada ez zegoen bere ametsetako Errepublika idealaren aurka. Baina bai Errepublika errealaren aurka. Unamunok garbi uzten du, esperientzia errepublikar guztia zela erabat arbuiatzen zuena («todo empezó hace cinco años»). Errepublikaren esperientziak —eta hura gorria izan zela ez dago zertan ukatu— Unamuno errealitate espainol gordinera eraitsi du.

Errepublikak bi begiekin ikustera behartu duena ez baitzen bere mistika nazionalean asmatua zeukan San Joan Gurutzeko eta Don Quixoteren Espainia. Behiala Primo de Rivera jeneralaren eta militarismo guztien arerio gotorra, «el Ejército es el único cimiento con el cual uno puede dar una base seria a España», heiagoratuko da orain. Bera Errepublikaren bultzagileetakoa izan baitzen, Errepublikak ekarri bide duen kaosaren erruduntzat jotzen du orain bere burua, eta damutu egiten da iraganeko bere jokabideaz. «Hay que salvar la civilización occidental, la civilización cristiana».

Joan Fusterren iritzian, «pocos escritores cuenta la literatura española contemporánea tan reaccionarios como Unamuno». Beste batzuentzat liberal espainol handietako bat da.

2.2. UNAMUNOREN LIBERALISMOAZ

M. M. Urrutiak tesi doktoral bat dauka Unamunori buruz: *Evolución del pensamiento político de Unamuno*, Univ. de Deusto, 1997. Nire ustean tesiak frogatzen duena alderantzizkoa da, baina berak konklusio hau ateratzen du: «Unamuno se nos aparece como un gran intelectual liberal de la historia contemporánea de España. Como ha dicho recientemente Juan Marichal: "la gran figura del liberalismo español es Unamuno, con pensamiento y vivencias"» (14. or.).

J. Marichalek Unamuno liberal deklaratu zuenetik (1961), ematen du obligaziozko bilakatu dela hura liberal gisa aipa eta goraipatzea (E. Díaz, E. Luján, D. Gómez Molleda, P. Ribas, V. Ouimette, etab.). «Hoy casi nadie duda del liberalismo de don Miguel», baieztatzen du Urrutiak.

Ekibokoak saihesteko. Liberalismoa izan liteke:

- Politikoa: 1) konstituzionalismoa, hiru Botereen bereizketa eta mendegabetasuna, askatasun eta garantia konstituzionalak (bereziki pentsamendu-askatasuna), norbanakoa subjektu gisa aitortua, herriaren subiranotasun-aitortza. Geroago: boz-eskubide unibertsala (lehenago jabeei erresalbatua), alderdien sistema, demokrazia. 2) Estatu ahalik gutxiena, edo haren interbentzio-ahalen murrizketa gizartearen jardunetan.
- Ekonomikoa: salerosketa eta enpresa-askatasuna.
- Kulturala: norbanakoaren autonomia (erlijioso, moral, politikoa); irizpide arrazionalen, are arrazionalisten, eta zientziaren lehenestea (autoritatea edo fedea baino lehen, esaterako); gizakiaren ontasun eta hobegarritasun naturalaren ustea, optimismo historikoa.
- Filosofikoa: 1) arrazionalista kritikoa, edo, geroago, positibista; 2) progresoan sinestuna.
- Teologikoa: historiko-kritikoa, protestantea (katolikoari «modernismoa» esaten zaio).

– Psikologiko-morala: izaera edo jokaera irekia (ideia arrazistekin, etab., bateragarri dena).

Laburki, orain: 1. Unamunok bai bere burua («liberal por encima de todo») eta bai bere Bilbo («El espíritu liberal de Bilbao») ere behin eta berriro liberalak deklaratu ditu; bere burua liberala uste zuela ez dago dudarik (baina baita sozialista eta anarkista ere!). Ahaztu gabe liberalismoaren erdeinuak ere ez dituela falta: «este despotismo nuevo que algunos llaman liberal», «despotismo de la idea», «despotismo de la masa» (demokrazia liberala). 2. Unamunoren diskurtsoan elementu liberalak badaudela, ez dago dudarik: banakoaren autonomia, etab. Bere arima Erdi Arokoarekin ere, Unamuno modernoa da. 3. Praktika politikoan orobat joera batzuk eta aro batzuk izan dituela borroka liberalarenak, ez dago dudarik (monarkiaren arbuioa, Primo de Riveraren diktaturaren aurkaritza, Konstituzioaren eta Parlamentuaren aldekotasuna). 4. Teologia liberaletik ere badauzka elementuak; are, bere elementu liberal batzuek euren jatorri funtsean teologikotik beste alorretara hedatuak dirudite («el liberalismo representa el método. O si se quiere, el libre examen —hau berba teknikoa da!—, la libre discusión»).

Kontua da liberalismoarekin zer ulertzen dugun. XIX. mendean eta Lehen Mundu Gerrara arte, hiru korronte politiko jardun dira lehian Europan: liberalismoa, kontserbatismoa eta sozialismoa. Unamunorentzat liberalismoa hiruren nahaste bat da. Haren Estatuaren teoria, beharbada hasiera-hasieran liberala zen, gero, bere gorabehera guztiekin, liberala inoiz ez da izan; gehiago da Eliza bat salbatzaile eta interbenitzailea («lo que nos hace falta es un Estado fuerte»), eta azkenean Francoren altxamenduarekin bat etortzea koherentea da haren pentsamendu politikoarekin; haren pentsamendu etikoarekin koherentea izan den bezala protesta altxatzea, Salamancan bertan ikusi dituen krimenekin. Ez batak ez besteak dauka zerikusirik liberalismoarekin. Salamancako errektorea apostolu zibil bat da herriarentzat, baina ozta-ozta demokrata bat («me parece un error de nuestros liberales el de declararse demócratas», «no me entusiasman grandemente las democracias»; demokrazia —gehiengoaren agintea— eta liberalismoa —norbanakoaren autonomia— maiz kontrajartzen ditu berak). Era berean, Unamunok bere prediku etengabean begien aurrean duen herri-gizartea ardi galdu biblikoena da; horrela ulertzen da egiazko liberalismoa harentzat sozialismoa izatea; sozialismoak, ordea, ez du izan behar ekonomizista, norbanakoa salbatu behar dizu —arima!—; eta horregatik egiazko sozialismoa indibidualista da. Izan ere, sozialismoaren azken jomuga erlijioso-morala ei da; era berean «el liberalismo es espiritualismo», ez doktrina politiko edo ekonomikoa. Hau da, barne-barnean dena nahasten duten ardura eta eskema erlijiosoek menderatzen dute Unamunoren jarduera politikoa. Esentziala erlijioaren arazoa da; horren konplementu bat da politika.

Oinarrizko bi puntutara mugatuz, adibidez, norbanakoa eta askatasuna:

– Ezin da ukatu Unamunok gora-goratik aldarrikatzen duela norbanakoa, indibidualista erradikala dela (batez ere bere buruarena). Baina norbanako liberala Estatuaren aurrez aurre zutitzen da autonomo; Unamunoren norbanakoa, a) Elizaren aurrez aurre, eta b) heriotzaren aurrez dago zutik eta biluz. Unamunoren norbanakoa zentzu teologikoan bakarrik da zinez liberala, politiko eta ekonomikoki liberala bigarrentiarki bakarrik, eta hori ere ez beti (Unamunoren indibidualismo «liberal» bitxiaz, ikus «Indibidualismo absolutua»ren kapitulua, in: *Kristautasunaren agonia*, Elkar, Donostia 1996, Xabier Kintanaren itzulpena).

– Arrazionaltasunaren nagusigoa da norbanako liberala ezagutarazten duena. Ez Unamuno, eta ez Unamunoren norbanakoa. Unamunorentzat arrazoimenaren gainetik sentimentua dago, eta zientziaren gainetik fedea («digo y repito y diré y repetiré que ni la ciencia nos consuela de haber nacido ni podrá nunca sustituir a la religión»), eta biak borrokan darabiltza beti. Unamunoren norbanakoa tragikoa da. Hain zuzen horrek egiten du Unamuno interesgarri, baina ez du egiten liberal.

– Askatasuna Unamunok beti goraki aldarrikatzen du, baina Unamunoren askatasuna ez da askatasun liberala, gehienez ere preliberala esan beharko genioke (protestantea). Lehen-lehenik askatasun intimoa da, kontzientziakoa, «libre examen»ekoa. Eta askatasun esentzial horri erreferiturik ulertu ohi ditu askatasun publikoak (liberalak), pluralean aipatzen direnak. Europan iraultza erlijiosoa aspaldi egina egonik (XVI), kontzientzi askatasunaren kontzeptu liberala juridiko soila da (XIX/XX), Unamunorena ez bezala (Espainian iraultza erlijiosoa bere garaian ez baita egin, laurehun urte atzeratuta orain Elizatik aldaratzen direnei, espiritu liberalak esaten zaie, politikoki erreakzionarioenak izanda ere).

– Kulturalki nahiz psikologikoki halaber, Unamunoren temak eta angustiak eta jendarteko manerak ez dira batere liberalak. Bere axanpa espainolistak ere ez. 1. Bizitzaren sentimentu tragikoa fundamentala da Unamunorentzat. Hori total bateraezina da espiritu eta filosofia liberalarekin, hau B. Crocek azaldu duen eran, esaterako, ulertuz gero behinik behin, Unamunok berak Croce aipatu ohi baitu liberalismoaren arloan maisutzat. Liberalismoak historia askatasunaren garapen- eta garaipen-prozesu bezala ulertzen dizu, Croceren esanean; hots, historiaren ikuspide liberala optimista da, dramatikoa bai, ez tragikoa. 2. Politikan, ekintza liberalaren xedea elkarrizketa bidez harmonia soziala bilatzea da; Unamunok, izaeraz ere martinkontra bat (berak deritzo «anarkista» bere buruari), sua eta «gerra zibila» piztea bilatzen du. Eta, seguru asko, ondo egiten du, zegoen gizartean egonda. Baina hori ez da liberala.

Unamuno gizabanakoaz eta horren arimaz interesatzen da, ez gizarteaz eta gizartearen ongizate material edo epikurotarraz. Harentzat liberalismoa sozialismoarekin berdintzen da. Eta zer da haren sozialismoa? «Sueño con que el socialismo sea una verdadera reforma religiosa»; hau da, Unamunoren sozialismoa ez da sozialismoa. Desengainatua bukatuko du: «Lo malo del socialismo corriente

es que (...) olvida que tras el problema de la vida viene el de la muerte (...). La vida ¿merece la pena de ser vivida?». Unamunoren kezka guztien muina itaun larri horretan dago. Baina liberalismoak eta sozialismoak ez dute itaun horren erantzunik, itauna ere ez daukate-eta. Unamunok, ordea, Croce bere modura ulertuz, bere liberalismo/sozialismoa zinetako erlijiotzat eduki gura du. Donoso Cortésen kritika liberalismoari, «esta escuela todavía no ha llegado a comprender (...) el estrecho vínculo que une entre sí las cosas divinas y las humanas», behin eta berriro aurkitzen da Unamuno baitan. Hots, haren baitan ez dago politikaren edo arazo sozialaren autonomiarik teologiatik (erlijiotik).

Izatekotan, Unamuno liberal espainol bat da; hau da, espainola bai, ez liberala.

2.3. EUSKALDUNEZ ETA EUSKARAZ

Hasteko, gai honetan Unamunorengan bi periodo eta bi alderdi berezi behar dira. Gaztetxotan «abertzale» edo foruzale izan da; gero espainolista sutsua. Lehenengo periodo laburrak Unamuno intelektualarentzat ez dauka interes handirik, gero haren pentsamendu gehiena haren aurkako erreakzioa dela ulertzeko ez bada.

Gero, gaiaren bi alderdiri dago begiratu beharra: zer pentsatzen eta sentitzen duen Euskal Herriaz eta euskaraz, eta zer Espainiaz (Gaztelaz bereziki) eta espainieraz. Haren Euskal Herria ulertzeko, haren Espainiari kontrajarrita ikusi behar da. Unamunok jarrera anbiguoa, edo are kontraesankorra ukan du Euskal Herriarekiko. Kontraesana haren sentimentuen eta haren pentsamenduaren artean egon da. Euskal Herria maite zuen, bere euskalduntasunaz harro zegoen. Bestetik, espainolismoaren apostoluak Euskal Herria Espainiaren eta espainolismoaren zerbitzuan ikusi gura zuen: kulturalki euskararen heriotza iragartzen eta desiratzen zuen, politikoki Espainia jakobino unitarista eta zentralista aldeztu du eta abertzaletasunaren etsaia izan da. Bere euskalduntasuna, arrazara mugatua, hau da, deuseztara praktikan (oroipenen sentimentura ez bada eta arrazaren harrokeriatxo batera), Espainiaren halako mistika batean urtuta geratu da.

Unamunoren Euskal Herriarekiko sentimentu eta pentsamenduan sartzeko irakurgai egokia *Paz en la guerra* izan liteke (Txalaparta, Tafalla, 2008), Bilboren setioari eta azkeneko karlistaldiari buruzko eleberria kontakizunaren aldetik, baina mamian Euskal Herriaren muinaren muina adierazi gura duena. Originala 1897an argitaratu zen (EAJ/PNV 1895ean sortu zen). Zer bilatzen du Unamunok Euskal Herriaren edo Gaztelaren funtsa bilatzen duenean? 1895ean *En torno al casticismo* argitaratua zuen, Gaztelaren funtsari buruzkoa; Unamunoren aurreneko mundua Euskal Herria izan bada, bigarren eta definitiboa Gaztela izan baita. Unamunoren traiektorian behatuta: 1892tik aurrera sinpatia sozialistak nabari ditu; 1894an Alderdi Sozialistan sartu da, 1896an Alderditik atera. Hots, kanpotik sozialista militante aktibo zirudien bitartean, bere barruan batere sozialistak ez diren pentsabideetan ibili da murgilduta arras bestelako filosofia baten xerkan. Esan nahi baitu: teoria sozialista

(marxista) gizartearen eta historiaren azalpen bat da; gainazaleko itxurak utzita, zein den azpi-azpian gertakarien eta bilakaera historikoaren egiazko arrazoia, zertan diharduen jendeak eta zergatik; eta esplikazio sozialista, labur esateko, ekonomiko edo materialista da. Unamuno «sozialistari» beti lar axalgainekoa iruditu zaio nonbait argibide arrazional hori, berak historiaren egiazko funtsa herrien esentzia espiritualean, barne-historian, sumatzen du (eta horren espresio sakonena erlijioan atzematen da; herri bakoitzak bere erlijioa du). Lehenago ere arakatuak zituen zatikako ikerketetan, Costaren maneran, euskal tradizioak, folklorea, zuzenbidea, historia, eta batez ere burutua zizun tesi doktoral kritikoa. Orain, Salamancan, Gaztelaren kontrasteak akuilatua, Euskal Herriaren funtsa bera deklaratuta utzi gura dizu testamentu modu batean, bere iker eta gogoeten laburbilduma eta konklusio gisa, Euskal Herriarekiko kapitulua itxita utzi gura balu bezala. «En este libro —que es el que fuí [!!]— encerré más de doce años de trabajo», aitortu dio Clarini gutunean (1896-12-31); «la he pensado durante siete años», «la redacción definitiva la hice este verano (1896)». Gero Gaztela eta Espainiara dedikatuko da.

Unamunoren pentsamendua Euskal Herriaz oso samartu nahi izanez gero tesi doktorala eta konferentziak ere begiratu behar lirateke, batez ere Bilboko Lore Jokoetakoa (1901). Tesiak (1884) bere iragan foralista euskaltzalearekin etena markatzen du. Euskaldunez eta euskaraz honezkero dituen iritzi gogorrak (euskararen gauzeztasun kulturala, hil beharra, etab.), euskalarien artean ez ziren berriak, beraz posizionatze kritiko originalak ez dira izan (Ereño Altuna, J. A. (2000): "Dos importantes fuentes lingüístico-etnológicas de la tesis de Unamuno", in C. Florez Miguel, *Tu mano es mi destino*, Salamanca, 133-142). Baina berarekin agora etnologiko-politikora pasatu dira eta antieuskararen errepertoriora, prentsa PSOE-sozialistan adibidez, eta gaur arte.

Hona hemen ideia nagusiak laburki:

Euskal arraza denaz bezainbatean, hori berez primitiboa da, naturari itsatsia bizi da, bere tokia behien ondoan dago. Argumentu nagusiak psikologiatik (euskaldunen nahimen indartsua, adimen eta irudimen eskasa, etab.) eta errealitate sozialetik ateratzen ditu, maiz entzunak ditugu egunotan ere prentsa eta literatura espainoletan. Argumentu antropologikoetako batek ez ahaztea merezi du.

> Hay un hecho, señores, que distingue grandemente a los salvajes y los pueblos primitivos de los amansados en la cultura y que llevan la civilización en las venas. La diferencia de la capacidad relativa del cráneo de la mujer al hombre es mayor en los pueblos civilizados que en los que no lo están; entre los salvajes, la mujer es tan inteligente como el hombre; entre los cultos, la diferenciación se ha operado, y mientras el hombre llega a la edad adulta, la mujer apenas pasa de la infancia (...). Cuantos visitan el país vasco están contestes en afirmar que aquí la mujer vale más que el hombre.

Arraza primitiboa garen froga garbia. Bide batez aipatzeko, Ortega y Gassetek ere euskal arrazaren primitibismoaren seinale bat emakumeengan sumatzen zuen. Biarritzen hotelera heldu da, eta «en la puerta una virgen vascongada escamotea nuestros sombreros. Es un bello ejemplar de la raza éuskara. Los ojos, un poco oblicuos; la nariz, muy breve; la piel, tirante sobre los pómulos, todo ello con la ligera insinuación del tipo mongólico que es tan frecuente en la mujer vasca». Arraza mongolikoak primitibisssimoenak dira noski.

Historiaz bezainbatean, euskaldunak prehistorian bizi dira, historiarik ez dute egin, ez barneko ez kanpokorik. Euskal Herriko historia bertan Gaztelak egin duena da; euskaldunek egin duten historia, Gaztelaren historian eta Gaztelarentzat egin dutena (Elkano, etab.). Euskal Herria bera historia gabeko herria da.

Kulturaz bezainbatean, euskaldunen kulturarik ez dago. «La civilización y cultura que hay en el país vasco son de origen latino». «Toda, absolutamente toda la civilización que poseemos los vascos se la debemos al cristianismo y a los pueblos extraños: ellos nos han civilizado».

Hizkuntzaz bezainbatean, euskara hiltzen ari da; lehenbailehen hiltzea hobe («enterrémosle santamente, con dignos funerales»), mundu modernorako ezgauza baita. «El vascuence permaneció siendo una lengua rural, en que apenas se hablaba más que de la vida cotidiana, de la vaca y de la borona, una lengua sin literatura. Hasta las leyes y los fueros están escritos en castellano». Haren gauzeztasuna, gainera, ez da koiunturala, berezkoa da, izaeraz beraz hizkuntza arkaikoa baita, eragozpen bat kulturarako. «El vascuence (...) se pierde sin remedio y nos conviene a los vascos que se pierda, porque por su índole misma es tal idioma un obstáculo para la difusión de la cultura».

Euskaldunak ments duen guztia, espainolak sobera. Geografiak berak esplikatzen du hori («el paisaje hace al paisanaje»):

> En Castilla el espíritu se desase del suelo y se levanta». Euskal Herriak, txokoari atxikia, historiarik ez badu, Espainiak mundiala dizu. Espainiaren historiaz Unamunok irakurketa loriazkoa dagi. Espantsionismo eta inperialismo gaztelaua ez da harrapakariarena, espiritu altuarena baizik. «Castilla, en su esclusivismo, era menos exclusiva que los pueblos que, encerrados en sí, se dedicaban a su fomento interior [Katalunia, Euskal Herria]; fue uno de los pueblos más universales, el que se echó a salvar almas por esos mundos de Dios, y a saquear América para los flamencos (*En torno al casticismo*).

Bihotz eta eskuzabalki aurrena Espainiako eskualdeak bilduz joan da, hurrena bere Quixote-espiritua mundu zabalean barreiatuz («Cervantes sacó a Don Quijote del alma de su pueblo»). Kritikoena denean ere (itxikeria, dogmatismo, Inkisizio), arima espainolaren handitasuna Unamunok ez dizu loriatu gabe utziko.

Txit kritikoa izan da gizarte espainolarekin. Maiseoan ari ez denean, Unamunok maite duen Espainia Isabel eta Fernandorena da. Faxista («fajista») gazte kalapitariak maiz erasiatu arren, Unamunok diskurtso falangistari ekarpen handiak egin dizkio. Errepublika ezarri delarik, norabidea seinalatu nahiz bezala, Salamancako Unibertsitateko Errektoreak aldarrikapen honekin ireki du ikasturte akademikoa, fasadako Errege Katolikoen medailoiari aipu eginez: «En nombre de Su Majestad España, una, soberana y universal, declaro abierto el curso de 1931-1932 en esta Universidad, universal y española, de Salamanca». Auzitan zegoen Estatuaren antolaketa unitario edo federala, auzitan erlijioaren estatusa errepublikan. Unamunok Espainiaren batasuna errebindikatzen du, eta —harrigarriago— Espainiaren katolikotasuna: «una y universal es la cultura; unidad es imperialidad, y universalidad equivale, etimológicamente, a catolicidad». Federalismoaren aurka berak eman duen arrazoi bat gaurko egunotan maiz entzuten da berriro autonomien aurka:

> El autonomismo cuesta caro y sirve para colocar a los amigos de los caciques regionales. Habrá más funcionarios provinciales, más funcionarios municipales; habrá un parlamento y un parlamentito. Es decir, existirá una enorme burocracia que contará, además, con el asilo del Estado federal. La burocracia crecerá de tal modo que llegará un día en que todos seremos funcionarios, y entonces, en lugar de una república de trabajadores, vamos a hacer una república federal de funcionarios de todas clases.

Gaztetan periodo federalista labur bat izan zuen; gero behin eta berriro Estatu zentralista aldeztu du.

Unamunoren Espainia, edo Hispanitatea, ez da Estatura mugatzen. XIX. mendean historia eta herriak arraza terminotan interpretatzea bihurtu da «zientifikoa». Ez zen erraza. Esaterako, Frantziarako Renanek soluzioa asmatu behar izan du, han ibilitako aurreindoeuroparrak, zeltak, grekoak, latinoak, germaniarrak, fusionatu, eta «mintzaira frantseseko arraza» emaitzatu dutela; nazioa eta arraza berdindu gura badira, arraza/nazio frantsesik bestela ez baita posible. Arraza linguistikoa kontzeptu burugabe bistakoa izan arren, Unamunori primeran etorri zaio, eta hispanoamerikar guztiak, kreoleak, indioak, beltzak, filipinarrak, gaztelauak, katalanak, euskaldunak, «la gran raza histórica de lengua española» bihurtu ditu (alabaina, arraza espainol hori eta euskal arraza berdintzeko une konkretuetan beti uzkurtxo gelditzen dela ematen du, erreparoren bat sentituko balu bezala).

Oroz gain, Unamuno hizkuntzaren nazionalista espainola da. Euskara basahizkuntza landugabea izaki, espainola zokokeriaren gainditzea da, unibertsaltasunaren eta liberalismoaren ekarle. «Sí; la lengua española es el vehículo del liberalismo, como lo es todo lo que une y relaciona íntimamente los pueblos». Horregatik Estatuaren obligazioa herritar guztiei espainola inposatzea da. Hori ez da zapalketa, askapena da. «Eso de que Cataluña, Vasconia (...) hayan sido oprimidas por el Estado español no es más que un desatino» (egia da, beste testu batzuetan zapalketa hori berak salatu duela); espainola ikastera behartuz euskaldunak eta katalanak edo galegoak

euren estukeriaren leizetik askatu eta mundu zabal argira ateratzen ditu. Espainolak —gaztelaniak— izan behar du hizkuntza nazional bakarra: «En esta cuestión de la lengua nacional hay que ser inflexibles (...). Todo lo oficial, en español; en español las leyes, en español los contratos que obliguen, en español cuanto tenga fuerza legal civil, en español, sobre todo y ante todo, la enseñanza pública, en sus grados todos». Estatutu katalana Kongresuan eztabaidatu denean, berari hizkuntzaren kapitulua interesatu zaio, espainolaren —ez eskubidea— obligazioa defendatuz.

> En bien espiritual de Cataluña, en bien de su mayor cultura, hay que mantener la oficialidad *irrestringida* e *incompartida* de la lengua española, de la única lengua nacional de España». Unamuno bere ustean ez da intolerantea, ezta katalanaren etsaia ere. Katalanera poesian erabiltzea oso pozgarria litzaioke. Bestela, baina, «¿quieren hacer cultura? Pues tendrán que hacerlo en español». Beharrezkoa da katalanei ikusaraztea eta buruan sartzea —"aunque sea violentándoles"— espainolez jardun behar dutela eta espainolak izan behar dutela. «Los catalanes serán más catalanes, cuanto más españoles sean.

Superkatalantasun espainol hori zertan etzango den, misterioan uzten du. Bere literaturkerietako bat gehiago.

Hala ere, Unamunoren gauzarik politenetako bat hizkuntza eta herritasunaren filosofia da (espainierari buruz diharduela).

> Un idioma de habla es una raíz, más que depósito de tradiciones, y lleva en sí una visión y una audición del universo mundo, una concepción de la vida y del destino humano, un arte, una filosofía y hasta una religión. No sólo se imagina, sino que se piensa, se sueña y se siente en un idioma de habla popular (...). La visión, el ideal del Universo, surge para cada pueblo de su idioma verbal. En metáforas, estibadas a peso de siglos, hechas ya expresiones inmediatas y espontáneas, está la raigambre de la filosofía de cada pueblo.

Hizkuntza da «la que asienta lo que podríamos llamar la religión civil de las naciones».

Salbatore Mitxelena, Txillardegi, eta unamunozale euskaltzale batzuek inkoherentzia egotzi diote.

Unamunok bere burua euskaldun eta espainola deklaratzeko enkarnu amorratua ukan du bere bizi guztian, eta azken egunetako istiluan ere Millán Astrayrekin bere haserrearen arrazoietako bat euskaldunen defentsa izan da. «Vasco por los cuatro costados», aitortu du bere burua Bilboko Lore Jokoetan (1901); «vasco por treinta y dos costados» (1931, «Don Quijote y Bolívar»); «vasco por todos setenta y ocho costados, de casta, de nacimiento, de educación y sobre todo de voluntad y afecto» (1911, «El imperialismo catalán»). Berdin, *opportune et importune* topatzen dituzu espainol eta espainolik espainolenaren aitortzak. *Kristautasunaren agonia* irakurtzen ari zarela, «nik, euskalduna naizenez gero, eta berez hori are espainolagoa izatea da...»; eta segidan Saint-Cyran abade baionarra aipatzen da: euskalduna bai, are

espainolagoa zipitzik ez. Zertara dator espainoltasun-aitortza hura, logika apurrik gabe? Ezertara ez, Unamunoren obsesioa adieraztera baino.

> Pues sí, soy español, español de nacimiento, de educación, de cuerpo, de espíritu, de lengua y hasta de profesión y oficio [hizkuntza eta literatura espainoleko irakaslea]; español sobre todo y ante todo, y el españolismo es mi religión, y el cielo en que quiero creer es una España celestial y eterna, y mi Dios un Dios, el de Nuestro Señor Don Quijote, un Dios que piense en español y en español dijo: ¡sea la luz!, y su verbo fue verbo español... (*Niebla*, 1914; 1907an idatzia).

2.4. BIZITZAREN SENTIMENTU TRAGIKOAZ

Denbora bera izaten da autoreekin aski kritikoa. Hemen, hala ere, Unamunoren irakurketa kritikoan badihardugu, arrazoia da urteotan haren mito bat eraiki dela, heroi antifrankista, liberal, demokrata bihurtzen duena, «betiko demokraten» gogara. Unamunoren faboretan izan gura lukeen interpretazio hori haren kaltetan da, azkenean zergatiko berak direlako hura batere handitzen ez dutenak politikan, eta bikaintzen dutenak poesian, eleberrian, saioan, filosofian.

Unamunoren handitasunaren arrazoia berak bizitzaren sentimentu tragikoa deitu duenean datza, haren pentsamendu guztiaren ardatza eta obraren iturria. Bizitzaren sentimentu tragikoa eragiten duena, bizi nahi eta hil beharra da estreina; eta, horrekin zerikusian, bizitzak itzuri ezinezko galderak dauzkala, arrazoimenak erantzun ezin dituenak, bizitza eta arrazoimena elkarrekin gatazka atsedengabean lotaraziz.

Hobeto esan: nire bizinahia eta nire hil beharra eta nire arrazoimena dira arazoa. Izan ere, filosofiak, zientziak, esplikazioz beterik daude gizakia zer omen den. Baina ni ez naiz filosofietako zerki abstraktu hori, bere toki jakinarekin unibertsoan, noiznahi eta nonahikoa dena izan, ezpada existitzen naizen hezur eta haragizko gizon-emakume galdu hauxe. Hautatu ez nuen mundu batean jaio naiz, aldatu ezin dudan bizitza batean bizi naiz. Nire existentzia atzematen hasten naizenean, aurkitzen dut, egon ez dakit zeinek hementxe ipinita nagoela, ez dakit zergatik, zertarako. Aurkitzen dut galderaz eta kezkaz eta minez beteriko izakia naizela. Aurkitzen dut eginahalak egin arren, nire existentzia erabaki duten eta gobernatzen duten indarrek —patuak—nire ahalegin guztiak burlatzen dituztela, nire egintzak alferrik direla, zentzurik ez dutela. Aurkitzen dut nire existentzia hau ulertzeko eta nire itaun horiei erantzuteko arrazoimenak (adimenak) deus ez didala balio; baina, nahi ala ez, ezin dudala ez baliatu arrazoimenaz, arrazoimena ukatzeko bada ere.

Esperientziako lehenengo datua neure existentziarena da. Existentzia edo biziaren funtsa bizinahia da —Spinozaren *conatus*—, bizi beti gehiagoren nahia. Ez da hiltzea edo irautea soilik; da beti muga berriak bizitzea, neu gauza/modu berrietan bizitzea, gero eta gehiago, nire nia hedatzea, inguru guztiaz jabetzea. Biziak —niak— gehiagotu egin gura du. Baina biziaren urrats bakoitzak horma

batekin egiten du topo: nire hilgarritasunaren kontzientzia, sentimentu tragikoaren muina. Zer da, baina, hiltzea? Denaren azkena baldin bada, eta gorputzarekin batera nire kontzientzia azkentzen bada, «entonces no es nuestro trabajado linaje humano más que una fatídica procesión de fantasmas que van de la nada a la nada». Gero bizioste eternalik ez badago, bizitzak ez du inolako baliorik orain; are, «entonces no hay nada más execrable que la existencia». Unamunorentzat bizitzak ez du zentzurik biziostearen segurantziarik gabe. Hortik heriotzaren kontzientziaren larrimina eta ez hil nahia. Hilezkortasun-gosea gizatasunaren esentzia da Unamunorentzat.

Zientziak, ordea —arrazoimenak—, jaio dena hiltzea logikoa baino ez dela, esaten du.

Orduan sentimentua arrazoimenaren aurka asaldatzen da: logikoa ala ez, «no quiero morirme, no; no quiero, ni quiero quererlo; quiero vivir siempre, siempre, siempre, y vivir yo, este pobre yo que soy y me siento ser ahora y aquí, y por eso me tortura el problema de la duración de mi alma, de la mía propia».

Gizakiak hilgarritasunari ihes egiteko bizialdi barruan daukan baliabidea maitasuna da: maitasun sexuala, batetik, haurretan gure buruak betikotzeko; bestetik ospea, «non omnis moriar», jendearen oroipenean betikotzeko (eta Unamunoren ustean espainierak betikotasun handiagoa ematen du euskarak baino: bere izena eta bere nia konfunditzen dira). «Cuando las dudas invaden y nublan la fe en la inmortalidad del alma, cobra brío y doloroso empuje el ansia de perpetuar el nombre y la fama. Y de aquí esa tremenda lucha por singularizarse, por sobrevivir de algun modo en la memoria de los otros y los venideros, esa lucha mil veces más terrible que la lucha por la vida». Haatik, ez bat eta ez bestea aski, eta sinesmenarekin ahalegintzen gara hilkortasuna azkenbetiko garaitzen.

Hilgarritasunean etsi ezinda, betiraun goseak biziostearen sinesmena sortzen du, jakinik sinesmen hori gezur bat eta iruzur bat dela. Baina iruzur bat neure buruari egiten diodana, ezin dudalako onartu ni hau betiko ezereztea. Betiko bizinahiaren poderioan, arrazionalki absurdu dena sentimentuak sinetsi egin nahi du eta egiten du: sinesmen erlijiosoak arima Jainkoaren altzoan betikotzen du; sinesmen filosofikoak (panteismoak) kosmoaren magalean ematen dio hil eta gero betiereko atsedena. Sinesmena, Unamunok asko enfatizatzen du hori, desesperazioaren sinesmena da, gogoasea ez beste guztia. Beraz, borroka da, kreazioa; ez dagoenaren, baina egon dadila nahi dugunaren kreazioa. Sinesmenak ez du egiten badagoen zerbait aitortu, baizik ez dagoen zerbait sortu: hilezkortasuna, Jainkoa; «sí, crearlo y vivirlo, y consumirlo, y volverlo a crear y consumirlo de nuevo viviéndolo otra vez, para otra vez crearlo y así, en incesante tormento vital».

Arrazoimena, ordea —zientzia— kontzientziaren baldintza gorputza dela, tematzen da; hura deseginda identitaterik ez dago —nirik—, ez kosmoan eta ez Jainkoren baten baitan. Berdin da zeru goira joanda edo kosmos barrura itzulita, harako hura ez da ni izango.

Hau da, arrazoimenak nire bizi-antsiak ezabatu egiten ditu («la razón es enemiga de la vida»): heriotza heriotza da; egiten duzun guztia ezerezera doa. «La consecuencia vital del racionalismo sería el suicidio», ondorioztatzen du Unamunok. «La verdad racional y la vida están en contraposición. ¿Y hay acaso otra verdad que la verdad racional?».

Behiala Pascal nola, izartegi infinitoen azpian hauts izpi galdu bat sentitzen da Unamuno. Baina berak, arrazoimenean ezin eta, infinitoaren gosean ikusten du gizakiaren handia. Eta gure ezdeusaren sentimentua erabatekoa denean gure baitan Jainkoaren irudia sortzen da. «Tenemos a las veces el sentimiento directo de Dios, sobre todo en los momentos de ahogo espiritual. Y este sentimiento, obsérvese bien, porque en esto estriba todo lo trágico de él y el sentimiento trágico de toda la vida, es un sentimiento de hambre de Dios, de carencia de Dios. Creer en Dios es, en primera instancia, querer que haya Dios». Jainkorik ez dago, egon dadila nahi dugulako baino. Eta nahi dugun Jainkoa dago. Ez daukagu haren existentziaren frogarik, beharra baino. Ez behar arrazionala; existentziaren angustiak, hilezkortasun eta eternitate-goseak, absolutuaren egarriak ematen digu hori beharra. Katolizismoari Unamunok kritikatzen diona, arimaren gose-egarria, biziaren oldarra dena, arrazionalizatu egin izatea da, biziaren uko bihurtu. Katolizismoak nahi duena da «querer creer con la razón y no con la vida». Arrazoiketa metafisikoen bidez «al Dios-Nada..., al Dios ateo» heltzen da; Jainko biziarengana biziaren bidez bakarrik ailegatzen da. Ailegatzen da? Ez, beti bila ibiliko da, desesperatuki bila. Borroka azkengabe honen sinboloa gurutzean —"zergatik abandonatu nauzu?"— desesperatua hiltzen ari den gurtzifikatuaren agonia, borroka, da.

Zalantza gabe hau dena erlijioaren fenomenologia-saio arrazionaltzat har liteke (nola asmatu da hilezkortasuna?, nola sortu du gizon-emakumeak Jainkoa?, zergatik sinesten ditu kontu guztiok?), nire buruaren existentzia kartesiarki auzitan jar litekeen bezalaxe, hain zuzen arrazionaltasun erradikalago baten xerka. Unamunok, baina, izugarrizko angustia pertsonal gisa planteatzen dizu. Existitzen naiz?, Jainkoren baten ametsa naiz?, etab. Horrek, filosofiaren, partikularki Euskal Herriko pentsamenduaren historian toki eztabaidagarri baina original bat esleitzeaz gain, dramatismo larriko literatura egiteko aukera eman dio.

Unamunoren pentsamendu tragikoan abiatzeko irakurgai gisa, nobelan *San Manuel bueno, mártir*, gomenda liteke. Saioan *Bizitzaren sentimendu tragikoaz*, Klasikoak, Bilbo 1994. Poesia bat «Aldebarán» izan liteke.

Literato handia eta pentsatzaile kritiko zorrotza da Unamuno. Haren obran kontraesanetan kateatua deskribatzen da gizon-emakumearen existentzia; esan liteke obra guztia horren bariazioetan datzala: arrazoimena/sinesmena, logika/biologika, burua/bihotza, nahimena/adimena (arrazoimena), maitasun espirituala/maitasun sexuala, denborazkotasuna/eternitate-gosea, etab. Unamunoren poesiek, nobelek, mila eratan hori azaltzen dute. Kontraesanen mataza bat besterik ez da nire

existentzia. Hori da, badakit hori dela, baina patu horren aurka errebelatu egiten naiz eta etengabe borrokatu, jakinda ere alferrik dela, garaipenik ez dagoela, etengabe alferrik borrokatzea besterik ez dagoela —Don Quixoteren borrokak—, eta horixe nahi izatean datza bizitzaren sentimentu tragikoa. «La vida es tragedia, y la tragedia es perpetua lucha, sin victoria ni esperanza de ella».

Bizitzaren sentimentu tragikoa berez gizaki ororena da, baina Unamunoren ustez espainola da bereziki. «Lo que llamo el sentimiento trágico de la vida en los hombres y en los pueblos es por lo menos nuestro sentimiento trágico de la vida, el de los españoles y el pueblo español, tal y como se refleja en mi conciencia, que es una conciencia española». Historiak, arteak, erlijio espainol herritarrak —gurutzeek, etab.— sentimentu tragiko hori ispilatzen ei du. Bizitzaren seriotasun tragiko hori ei da herri espainola beste herri guztien gainetik jartzen duena. Bestetik, askotan deklaratu du, oraingo herria loakartua dagoela, eta bere egitekoa —Unamunorena— jendea berriro sentimentu tragikora iratzartzea dela; espainolak espainolizatzea alegia. Elizari hori bera galdegiten dio, zeren-eta haren eginbeharra «es, en su máxima parte, obra de españolidad». Unamunorentzat bizitza seriotan bizitzeko modu bakarra erlijiosoa da; bere bizitza tragikoki bizi duena bakarrik da zinezko pertsona. Kontua da politikari ere, ongizatea-edo gabe, azken finean arimaren ardura exigitzen diola. «(Unamunok bezala kristautasuna seriotan hartzen duenarentzat) toda cuestión política o lo que sea debe concebirse, tratarse y resolverse en su relación con el interés individual de la salvación eterna, de la eternidad» (egia da, beste egun batean Estatu laikoa Frantziako eran aldeztuko dizula). Unamuno funtsean, bere aitorpenaren arabera, «un español acongojado por la inquietud religiosa» izan da. Horrek dagi haren handia eta haren txikia.

ORHOIT GUTAZ

En la pequeña iglesia de Biriatu, a orillas del Bidasoa, hay un mármol funerario con la lista de los once hijos de Biriatu que murieron por Francia en la gran guerra. En la cabecera dice: «A sus hijos que han muerto en la guerra, el pueblo de Biriatu». Luego, la lista de los muertos. Y debajo: Orhoit Gutaz, esto es, «Acordaos de nosotros»

Pasasteis como pasan por el roble
las hojas que arrebata en primavera
pedrisco intempestivo;
pasasteis, hijos de mi raza noble,
vestida el alma de infantil eusquera,
pasasteis al archivo
de mármol funeral de una iglesiuca
que en el regazo recogido y verde

del Pirineo vasco
al tibio sol del monte se acurruca.
Abajo, el Bidasoa va y se pierde
en la mar; un peñasco
recoge de sus olas el gemido,
que pasan, tal las hojas rumorosas,
tal vosotros, oscuros
hijos sumisos del hogar henchido
de silenciosa tradición. Las fosas
que a vuestros huesos, puros,
blancos, les dan de última cuna lecho,
fosas que abrió el cañón en sorda guerra,
no escucharán el canto
de la materna lluvia que el helecho
deja caer en vuestra patria tierra
como celeste llanto...
No escucharán la esquila de la vaca
que en la ladera, al pie del caserío,
dobla su cuello al suelo,
ni a lo lejos la voz de la resaca
de la mar que amamanta a vuestro río
y es canto de consuelo.
Fuisteis como corderos, en los ojos
guardando la sonrisa dolorida
—lágrimas del ocaso—,
de vuestras madres —el alma de hinojos—,
¡y en la agonía de la paz la vida
rendisteis al acaso!...
¿Por qué? ¿Por qué? Jamás esta pregunta
terrible torturó vuestra inocencia;
nacisteis... nadie sabe
por qué ni para qué... ara la yunta,
y el campo que ara es toda su conciencia,
y canta y vuela el ave...
¡Orhoit Gutaz! Pedís nuestro recuerdo
y una lección nos dais de mansedumbre;
calle el porqué..., vivamos
como habéis muerto, sin porqué, es lo cuerdo...
los ríos a la mar..., es la costumbre.
y con ella pasamos...

El Cristo yacente de Santa Clara (Palencia)

(zati hautatuak)

Este Cristo inmortal como la muerte
no resucita; ¿para qué?, no espera
sino la muerte misma.
De su boca entreabierta,
negra como el misterio indescifrable,
fluye hacia la nada
a la que nunca llega, disolvimiento.
Porque este Cristo de mi tierra es tierra.

Dormir, dormir, dormir..., es el descanso
de la fatiga eterna,
y del trabajo de vivir que mata
es la trágica siesta.
No la quietud de paz en el ensueño,
sino profunda inercia,
y cual doliente humanidad, en la sima
de sus entrañas negras,
en silencio montones de gusanos
le verbenean.

Cristo que, siendo polvo, al polvo vuelto;
Cristo que, pues que duerme, nada espera.
Del polvo prehumano con que luego
nuestro Padre del cielo a Adán hiciera
se nos formó este Cristo trashumano
sin más cruz que la tierra;
del polvo eterno de antes de la vida
se hizo este Cristo, tierra
de después de la muerte;
porque este Cristo de mi tierra es tierra.

No hay nada más eterno que la muerte;
todo se acaba —dice a nuestras penas—:
no es ni sueño la vida;
todo no es más que tierra;
todo no es sino nada, nada, nada...
y hedionda nada que al soñarla apesta.
Es lo que dice el Cristo pesadilla;
porque este Cristo de mi tierra es tierra.

.....

Este Cristo español que no ha vivido,
negro como la mantilla de la tierra,
yace cual la llanura,
horizontal, tendido,
sin alma y sin espera,
con los ojos cerrados cara al cielo
avaro en lluvia y que los panes quema.
Y aun con sus negros pies de garra de águila
querer parece aprisionar la tierra.
.....
¡Oh Cristo pre-cristiano y postcristiano,
Cristo todo materia,
Cristo árida carroña recostrada
con cuajerones de la sangre seca,
el Cristo de mi pueblo es este Cristo
carne y sangre hechas tierra,
tierra, tierra.

2.5. BIBLIOGRAFIA

Unamunoren bizitza eta obrari sarrera gisa:

Rabaté, J. C. eta Rabaté C. (2009): *Miguel de Unamuno. Biografía,* Taurus, Madril.
Soto, I. eta Soto M. (2006): *Miguel Unamunokoa*, Elkar, Donostia.

Euskaldunez eta Euskaraz:

Azurmendi, J. (2006): *Espainiaren arimaz*, Elkar, Donostia.
————, (20129: *Bakea gudan. Unamuno, historia eta karlismoa*, Txalaparta, Tafalla. Joseba Sarrionandiaren hitzaurrea.
Ugalde, M. (1966): *Unamuno y el vascuence,* Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires.